

Bertaratu diren kideak:

**Mari Luz Sanz Escudero**

Nafarroan desgaitasuna duten Pertsonen  
ordezkaria/ CERMIN

**Pablo Arriazu Amat**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Josu Repáraz Leiza**

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate  
titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen  
Elkartea

**Pilar López Valderrama.**

/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen  
ordezkaria FSIE-SEPNA

**Iosu Mena Sarasola**

Ikastetxe publikoetako zuzendarien  
ordezkaria

**Gil Sevillano González**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Santiago Álvarez Folgueras**

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen  
ordezkaria HERRIKOA

**Teresa María Arriaga Iraburu.**

/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien  
ordezkaria.

**Tomás Rodríguez Garraza**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

**Cristina Bayona Saez**

Unibertsitateen ordezkaria UPNA

**Antonio Bellido Pérez.**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Marta Díez Napal**

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen  
ordezkaria SORTZEN

Iruñean, 2022ko abenduaren 21eko 17:  
00etan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren  
egoitzan bildu da, Manuel Martín Iglesias  
jauna buru dela, alboan adierazitako  
batzordekideak eta Antonio Iriarte  
Moncayola jauna idazkari direla, Nafarroako  
Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo  
Hezkuntzako Batzorde Nagusia, honako gai-  
zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta,  
hala badagokio, onartzea.

2. Lehendakariaren informazioa.

3. 2021/2022 ikasturteko memoriaren  
zirriborria.

4. 2022ko 2. seihilekoko kontuen  
zirriborria.

5. 20/2022 Irizpenaren zirriborria.

6. Galde-eskeak.

**Isabel Fernández Pan**

Sindikatuena ordezkaria/UGT

**Ortzi Iriarte Garmendia.**

/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB.

**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe**

Toki entitateen ordezkaria

**Lourdes Larunbe Arretxe**

Ikastetxeetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Pedro Rascón Macías**

Aitortutako ospea duen pertsonalitatea.

**Arantxa Ruiz Vidorreta**

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS.

**María Jesús Salanueva Uriarte**

Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT.

**Begoña Unzué Vela.**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Bertaratzea desenkusatzeko dute:

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López**

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria AFAPNA

**José Jorge Lanchas Rivero**

Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

**Jabi Arakama Urtiaga**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (Geroa Bai).

**Mikel Rodríguez Aguirreche.**

Empresari elkarteen ordezkaria

**Sonia Rivas Borrell.**

Unibertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía**

Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE.

**María Teresa Módol Betriu**

Ikasleen Gurasoen Elkarteen. CONCAPA

Ez dira bertaratu:

**María Rodríguez Moran.**

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. HERRIKOA

**Mario Fabo Caleo**

Toki entitateen ordezkaria

**Javier Azanza Fuentes.**

Unibertsitatetik kanpoko Nafarroako ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria.

**Germán Chocarro Garbayo.**

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. BRITILA

**Patricia Fanlo Mateo**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

**Ainara González Rubio.**

Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

### **1. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta, hala badagokio, onartzea.**

Lehendakariak aurreko bilkurako aktari buruzko alegazio edo iruzkinen bat egiteko eskatzen die mahaikideei.

Bertaratutako kideek akta onartu dute.

### **2. Lehendakariaren informazioa.**

Lehendakariak Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueraren berri eman du 2022ko azaroaren 9tik abenduaren 21era bitartean. Autonomia, lidergoa, ebaluazioa eta ikastetxeetako parte-hartzeari buruzko XXVII. jardunaldiei buruzko monografia aipatu du, eta banaketa-prozesuan dagoela adierazi du.

Azkenik, hurrengo XXVIII. Eskola Jardunaldiaren nondik norakoak labur-labur azaldu ditu. 2023ko urtarrilaren 11n eta 12an Nafarroako Museoan egingo diren Gogoetak eta Datuak.

### **3. 2021/2022 ikasturteko memoriaren zirriborroa.**

Lehendakariak labur-labur azaldu du memoriaren edukia, eta onartzeko eskatu du.

Bertaratutako kideek aho batez onartu dute.

### **4. 2022ko 2. seihilekoko kontuen zirriborroa**

Lehendakariak labur azaldu du gastu-partiden edukia, eta 2022ko 2. seihilekoko kontuak onartzeko eskatu du.

Esther Lacastak papergintza txinatarra agertzen den epigrafea aldatzeko eta paleria gisa geratzeko eskatu du,

Baiespenez aldatzea erabaki da, eta 2022ko 2. seihilekoko kontuak aho batez onartu dira.

### **5. 20/2022 Irizpenaren zirriborroa.**

Lehendakariak jakinarazi du CERMINEk aurkeztutako zuzenketak ez zirela Kontseiluan jaso posta elektronikoaren funtzionamenduaren ondoriozko arazoengatik, baina bidalketak berrikusi ondoren, frogatuta geratu dela garaiz eta behar bezala aurkeztu zirela, eta, beraz, eztabaidatu eta bozkatu egingo direla.

1. zuzenketa: Mari Luz Sanzek aurkeztutako zuzenketa azaldu du.

Gil Sevillanok erantzun du zuzenketa horiek gardentasun publikoaren prozesuan aurkeztu zirela eta atzera boto zirela, eta, beraz, atzera botatzeko eskatu du.

Bozketa egin da eta emaitza hauxe izan da: aldeko botoak 6, kontrako botoak 12 eta abstentzioak 2.

2. zuzenketa: Zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzen da, eta atzera botatzen da ondoko botoekin: aldeko botoak 8, kontrako botoak 10, abstentzioak 2.

3. zuzenketa: Zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzen da, eta atzera botatzen da honako boto hauekin: aldeko botoak 8, kontrako botoak 9, abstentzioak 3.

4. zuzenketa: Zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzen da, eta atzera botatzen da honako boto hauekin: aldeko 5 boto, kontrako 13 boto, abstentzio 2.

5. zuzenketa: Zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzen da, eta atzera botatzen da honako boto hauekin: 4 aldeko boto, 11 kontrako boto, 5 abstentzio.

20/2022 Irizpenaren bozketa egin da, eta onetsi egin da ondoko botoekin: aldeko 12 boto, kontrako 1 boto eta 7 abstentzio.

## **6. Galde-eskeak.**

Kontseiluburuak proposatu du, kontseilukideen joan-etorrien konpentsazioari dagokionez, gaur egun erabiltzen den irizpidea lantokiarena dela, baina Nafarroako Eskola Kontseiluaren zereginetan parte-hartze handiagoa sustatze aldera, irizpidea aldatzeko eskatu du, Kontseiluko kideen helbidearena izatera pasatuz, Kontseiluaren jarduera lan-ordutegitik kanpo baitago.

Begoña Unzuek adierazi du Hezkuntza Sailaren irizpidea, eta, ondorioz, Nafarroako Gobernuarena, lantokiarena dela.

Pedro Rasconek Kontseiluko lehendakariaren proposamenarekin ados dagoela adierazi du, uste baitu egokiagoa dela Nafarroako Eskola Kontseiluko kideek betetzen duten funtzioarekin.

Planteatutako gaiari buruzko eztabaida orokorra sortu da.

Gil Sevillanok proposatu du gai hori ondorengo osoko bilkura bateko gai-zerrendako puntu batean sartzea.

Lehendakariak adierazi du ados dagoela proposamenarekin eta hala egingo dela.

Marta Diez-ek hartu du hitza, eta galdetu du ea familia batek uko egin diezaiokeen bere seme-alabek Googleren digitalizazio-plataformak erabiltzeari. Plataforma horiek ikastetxeetan erabiltzen dira.

Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du arazo hori Hezkuntza Departamentuan planteatu dela, eta aztertzen ari direla.

Lourdes Larunbe Arretzek agur esan dio Nafarroako Eskola Kontseiluari erretiroagatik, eta bertako kideei gogorarazi nahi die ikastetxeetan irakasle ez diren langileek ere parte hartzen dutela hezkuntza-prozesuan.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, lehendakariak eskerrak eman dizkie Osoko Bilkurara bertaratu diren kideei eta bilkurari amaiera eman dio 17: 57an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.